

METODOLOGIA-FITXA

UR KONTSUMOAREN ESTATISTIKA (090215)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Ur kontsumoaren estatistika

Eragiketaren kodea.

090215 (10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planari dagokiona).

Erakunde arduraduna.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT - Euskal Estatistika Erakundea.

URA – Uraren Euskal Agentzia

Gai-arloa.

Ingurumena.

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Zentzua.

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Ura hornitzen duten erakundeek eskutik edo gainazaleko, lurpeko, euriko edo isurketetako, itsasoko nahiz beste jatorri batzuetako ur-aprobetxamenduen titularren eskutik jasotako datuen bilduma.

Helburuak

Uraren baliabide naturalen kontsumoaren neurketa.

Euskal AEen ur kontsumoaren neurtzea. Uraren hornidura publikoa eta industri eta nekazaritza jardueretarako ur harguneen alta eskaerak neurtzea.

Aztertzeko aldagai nagusiak

Aldagai ur-kontsumoaren bolumenak dira, eta, horren barruan, hiriko ur-hornidurak eta ura hornitzeko iturri propioak bereizten dira.

Halaber, ur-kontsumoaren erabilerak kalkulatu dira: uraren etxeko erabilera, industria-erabilera, merkataritza-erabilera, erabilera publikoa, beste erabilera batzuk, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera, galerekin lotutako bolumena, kontsumo propioaren bolumena eta doan hornitutako bolumena.

Eremua

Populazio-eremua:

Aztertzen den biztanleria Euskal Autonomia Erkidegokoa da. Aztergaia beti da Autonomia Erkidegoa.

Lurralde-eremua:

Eragiketa estatistiko hau aplikatzeko eremu geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-eremua da.

Denbora-eremua:

Ebaluatuko den aldia urte natural osoa da.

Galde-sortak

Zabalkundea

[Saila: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.](#)

[Eustat webgunean](#)